



Harriz Herri, Irunberri

Ekaitz Santazilia

► **To cite this version:**

| Ekaitz Santazilia. Harriz Herri, Irunberri. 2006. artxibo-00110836

HAL Id: artxibo-00110836

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00110836>

Submitted on 1 Nov 2006

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

HARRIZ HERRI, IRUNBERRI

EKAITZ SANTAZILIA SALVADOR

Euskal Filologian Liz. 1.
UPV/EHU
2006-9-1

AURKIBIDEA

0.SARRERA	2
1.METODOLOGIA	2
2. IRUNBERRI KOKATUZ	4
3. IKUSPEGI DESBERDINAK	4
3.1 IKUSPEGI HISTORIKOA	4
3.2 HISTORIA HURBILA ETA ORAINA	5
3.2.1 Irunberri herri tradizionala	6
3.2.2 Haize berriak: euskararen normalkuntza prozesua	7
-Ikastola urratsez urrats.....	7
-Nafarroa Oinez 2003.....	8
-Udalaren jarrera.....	9
-Elizaren eragina.....	10
-Gizartea: eboluzioa.....	10
-Erabileraz.....	11
4. ONDORIOAK	12
5.ETA HEMENDIK AURRERA ZER?	12
6. BIBLIOGRAFIA	14

0. SARRERA¹

Soziolinguistikaren alorrean anitz dira jorratu daitezkeen atalak, bai datu estatistikoetan oinarrituz, bai ikuspegi historikotik begiratuta, bai enpirikotasun xumean bermatuz, lortu nahi dugun emaitzaren arabera. Hala ere, ikuspegi orokorra izan nahi baldin badugu, hirurak baliatzea dugu hoberena, haietarik zein den garrantzitsuena esaten ausartu gabe. Estatistikak balio zientifikoa eransten duela ematen du, baina jakin badakigu hauek ez direla ehuneko ehunean jarraitzekoak. Bestetik, historiari behatzea egungo egoera ulertzeko baliagarri zaigu zinez eta, azkenik, norberak bizitako esperientziak beti baldintzatzen du lana eta jokabidea, beraz ezin da, nahita ere, alde batera utzi. Idazkitxo honek hiru elementuen batura izan nahi badu ere, badakit ez dudala ekitatiboa izan dadin beti lortu: haratx emaitza.

1. METODOLOGIA

Lehenik eta behin, lanerako eremua finkatzea beharrezkoa da: herri bat, eskualde bat, fenomeno soziolinguistiko bat... hau argi nuen hasiera-hasieratik: Irunberri herrian jendeak zuen euskararekiko jarreraren berri izan nahi nuen eta hizkuntza honek herrian suertatutako eragina ezagutu.

Hau lortzeko, lan hau bi ataletan bereiz genezake. Lehen atalean sarreran aipatutako ikuspegi historikoa sartuko genuke, hau da, dokumentu idatzien bidez Irunberriko euskarari buruz dakiguna hartuko genuke kontuan hemen, bai toponimiaren aldetik, hondar hitzen bitartez edo bestelako testuen bidez. Bigarren atalean ordea, testigantza zuzenak izango genituzke, hots, historia hurbila eta oraina, oraindik bizirik dauden lekuko bidez eta gure esperientziaren bitartez bildua. Bigarren zati honetan azpiatal zenbait bereizi ditut.

Lehenengo zatia burutzeko, honi buruz dagoen bibliografia bildu eta irakurri dut, ez baita sobera anitza eta mamitsua, interesgarria izanik ere. Bigarreneko, herriko hainbat pertsonarekin solastu naiz beren esperientziak entzun nahian eta bestetik datu estatistiko batzuk batu ditut. Elkarrizketak grabatuak izan direnez, hiztunek baimena sinatu dute grabaketa erabil dezadan..

Hona hemen lekukoak alfabetikoki.²Esker mila guztiei:

- Aldaz Zufiaurre, Izaskun: Irunberriko ikastolako sortzaile eta irakaslea.
- Aoiz Viscarret, Conchita: Herriko biztanlea, 76 urte.
- Armendariz Aristu, Patrizia: Herriko biztanlea eta Euskal Filologian Lizentziatua.
- García, Oihane: Ikastolako ikaslea, 11 urte.
- Garde San Martín, Joaquín: Irunberriko alkatea 2003tik.
- Guarrotxena, Edurne: Ikastolako bi ikasleren ama, eta bertako langilea.
- Jimenez, Unai: Ikastolako ikaslea, 10 urte.
- Labiano Burguete, Garazi, & Lorien López de San Román: Ikastolako ikasle ohiak, 16 eta 17 urte.
- Rebolé del Castillo, Eusebio: Irunberriko sortua, herriko historialaria da.
- Turrillas Lusarreta, Fermina: Herriko biztanlea, 76 urte.

¹ Lan hau **Koldo Zuazo** UPV-EHUko irakaslearen *Euskararen Soziolinguistika* ikastaroaren barnean egin da.

² Mila esker bereziak Nora Uribeetxeberriari, Patxi Eslabari eta Alfonso Santaciliari, eman didaten laguntza bereziagatik.

- Uribeetxeberria, Nora: Ikastolako irakasle eta zuzendaria.

Grabaketa hauek entzunda eta bildutako datuak ikusita, lana paperera eramatea baino ez zait geratu, euskarak dituen arazoak eta abantailak ikusita ondorio batzuk ateraz eta Irunberrin euskarak aurrera egin dezan etorkizunari begira proposamen bat edo beste aurkeztera ausartuz. Dena dela, Irunberrirekin dudan lotura afektiboak eta nik neuk dudan pentsamoldeak erabateko objektibotasuna lortzea galarazi dit seguru, bihotzez eginiko lana ere badelako: Iruñetik Irunberrira egindako bidaiak merezi izan dute benetan.

2. IRUNBERRI KOKATUZ



Hainbat fenomeno soziologiko (eta, beraz, soziolinguistiko) ulertzeko, herria kokatzea ezinbestekoa zaigu. Irunberri Euskal Herriko ekialdean kokaturik dago, Pirinioen azpian. Iparraldean Nabaskoze, Erronkari eta Zaraitzu ditu, ekialdean Aragoi, hegoaldean Zangoza eta mendebaldean Izagaondoa bailara. 1.500 biztanle inguru ditu gaur egun, baina izan ditu gehixeago, eta askoz gutxiago ere bai, noski. Zerealen lantzeaz bizi izan da nagusiki, nahiz eta abeltzaintza ere izan duen, dena dela, iraupenezko nekazaritza izan da, etxean bertan kontsumitzekoa, edo gehienez, herrian bertan saltzekoa.

Hainbat ofiziotako biztanleak ere bazituen: okinak, zapatariak, ontzigileak... 1982. urteko Euskararen Legearen arabera, Irunberri eremu ez-euskaldunean kokatua dago.

3. IKUSPEGI DESBERDINAK

3.1 IKUSPEGI HISTORIKOA

Irunberriko euskara barietatean idatzitako testurik ez badugu ere, herri honetan euskara egiten zela zeharkako beste dokumentu batzuen bidez ziurtatu daiteke. Xabier Erizek³ bere obran esate baterako, euskararen ustezko hedaduraren Nafarroako mapak dakartza, eta IX. mendetik XIII.era euskalduntzat du Irunberri. Jimeno Jurio⁴ ere bat dator honekin, nahiz eta herriaren lur eremuaren zatitxo bat erdalduntzat duen; hauek usteak baino ez dira, halere. Dena dela, Manuek Lekuonak 1587ko herri euskaldunen zerrenda bat argitaratu zuen eta zerrenda honek Irunberri erabat euskalduntzat du, Aitor Aranak⁵ dioen bezala. Toponimia euskaldunak eta gaur egun arte mantendu den euskal lexikoak horixe bermatzen du. Eusebio Rebolék⁶ bildu ditu horiek, nahiz eta, berak aitortu bezala, lan zorrotzagoa beharrezkoa den.

³ Erize, Xabier, 1997.

⁴ Jimeno, José María, 1997.

⁵ Arana, Aitor, 2003.

⁶ Rebolé, Eusebio, 2003.

Baina testigantza gehiago badira, eta aski ongi laburbilduta Andrés Iñigok⁷ egindako hitzaldi batean. XVI. mende hondarrean apaizak meza euskaraz eman zuela badakigu. Baina Rebolék⁸ bi eskuizkribu interesgarri topatu zituen, eta nik neure begieiz ikustea erabaki nuen.⁹ Irunberriko arazo soziolinguistiko baten kronika dira, jadanik gaur egun arte iraun duten euskaldunen eta erdaldunen arteko tirabirak hasiak zirela erakusten dutenak. 1627 eta 1662ko bi prozesu hauetan, herrian apaiz euskalduna jarri behar zen bozkatu egin zen, aldeko eta kontrako argudioak ematen direlarik. Argigarria da, nola prozesu hauetan ez den eztabaidatzen irunberriarrek euskaraz dakiten edo ez, erromantzez ere badakiten baizik. Gauzak horrela, ematen du laborantzako jendeak (gehiengoak) ez dakiela gaztelaniaz eta aberatsek edo zerbitzuetako langileek bai ordea. Baina apaiz erdalduna eskatzen dutenek, gehiengoek bi hizkuntzak dakizkitela esaten dute. Argi dago bestelako interesak eta azpijokoak zeudela apaiz erdalduna jartzeko, izan ere irunberriarrek “apaiz euskalduna” eskatzen zuten izenik aipatu gabe, kontrakoek ostera, Lubián izeneko elizgizonaren alde egiten zuten soilik. Are gehiago, 1662ko prozesuan alkateak apaiz euskaldunaren alde zeuden bi zinegotzi gartzelera bidali zituen, hautaketa ospatzekoa zen egunean berean. Interesgarria da, nola “barrio Verde” deritzon bizi diren testuaren arabera euskaldun gehienak, beraz laborari gehienak. Gaur egungo Horno karrikaren ingurua da hau, segur aski. Dena dela, bi alderdietako kideak bat datoz euskara dela Irunberriko berezko hizkuntza aitortzean. 1627an apaiz erdalduna jarri bazuten ere, 1662an euskalduna izan zen.

Angel Irigaraik Irunberri 1778. urtean eremu euskaldunean kokatzen du oraindik, baina erdaldunean Bonapartek XIX. mendearen erdia pasata. Beraz hizkuntza ehun urte baino gutxiagoan galdu zen, eta bi mende eskas pasatu dira berreskuratzeari ekin ziotenetik. Hori bai, eguneroko jardunean egun arte hondar hitzak mantendu dira, nik neuk aitona-amonei entzunak (*chilingar*<zintzilikatu, *apurras*< ogi apurrak...) eta toponimo euskaldunak ugariak dira, gaztelaniaren eraginez batzuk eraldatu badira ere (*Arrobia*<La Rubia...¹⁰).

Eusebio Rebolé historialariak azaldu zidan bezala, eta berarekin ados nago, euskararen galera, gaztelaniaren ofizialtasun eta prestigioaren erruz suertatu zen, aberatsenak hau erabiltzera jo zutelarik, euskara ere jakin arren. Honen froga da, Zangozan (Irunberri hurbil, ikus mapa) aberats gehiago bizi zirela, ez zela hain herri laboraria eta hizkuntza Irunberri baino askoz lehenago galdu zutela. Beste askotan bezala, “Nor nire ofizioko, hura nire etsai”. Etxekoak hasi ziren bere hizkuntzari uko eginez.

3.2 HISTORIA HURBILA ETA ORAINA

Atal honetan bizirik dauden lekukoek bitartez edota guk geuk bizitakoaren bidez dakiguna sartzten da, beraz atal ez bakarrik luze, baina mamitsuagoa bada noski, ondorioz, azpitaldeak bereiztea ezinbestekoa zaigu. Bi garai garbi bereizten ahal dira: Irunberri euskara mintzatzen ez zenekoa eta bestetik berreskuratze prozesua hasi zenekoa. Lehendabizikoa herriaren bizimodu tradizionalaren isla da eta bigarrena herriaren modernizatzearen seinale. Paradogikoa da nola XX. mende hasieran baserri munduaren desagerpenak euskararen galera ekarriko zuela pentsatzen zen Euskal Herrian, herri askorentzat (guri interesatzen zaiguna

⁷ Iñigo, Andrés, 2003.

⁸ Rebolé, Eusebio, 1988.

⁹ Rebolék bibliografian Ollo eta Oteiza signaturapean daudela paratzen du, eta nik ere hala jarri ditut nire bibliografian. Dena dela, nik neuk kontsultatu nituenean José Luis Sales artxibozainak Irunberri signaturapean zituen dokumentuok, eta egia esan, ez dut ulertzen zergatik agertzen diren beste bi herri horiek.

¹⁰ Zer edo zer honi buruz: Santazilia, Ekaitz, 2006.

barne) modernitatea eta ideologia aldaketa izanik, hain zuzen ere, euskararen berreskuratze edota indartzea ekarri zutenak.

3.2.1 Irunberri herri tradizionala

Garai hau XIX. mendetik Francoren diktaduraren azken urteetaraino luza dezakegu beldurrik gabe. Irunberrin euskararik ez zela hitz egiten badakigu, baina hoRREk ez du esan nahi herriak gure hizkuntzarekin inolako harremanik ez zuenik.

Ez dezagun ahantz, 1 puntuan azaldu dugun bezala, Irunberriren iparraldean Zaraitzu eta Erronkari ditugula eta horiek XX. mendean erdaldundu direla. Izagaondoako zenbait herritan ere XIX. mende erdian euskara bazen; alderdi horiekin harreman sendoak baziren. Zaraitzu eta Erronkaritik, altxunbidea egiten zuten, hau da, ardiak neguan Pirinioetatik Bardeetara jaisten zituzten, lurralde beroagoetara, alegia. Horretarako Irunberritik pasa behar zuten, eta altxunbidea herritik beretik igarotzen ez bada ere, pentsatzekoa da zenbaitetan artzainak herrian sartuko zirela, babes edo janari bila bada ere. Bestetik, almadiak ere Irunberritik igarotzen ziren Zaragozara bidean. Zuhaitz enborrez egindako ontzi haiek Erronkari eta Zaraitzu aldean prestatzen ziren bertako basoen materialez eta Irunberrin geldialditxoak egiten zen arroiletik pasa aurretik, hau baitzen pasabiderik konplikatuenetarikoa. Aitonari berari entzun diot jende asko hil zela arroilean itota. Pentsatzekoa da noski, artzain eta almadiero haiek euskaraz solastuko zirela berandu arte, eta irunberriarrek horren berri bederen izanen zutela, nahiz eta hizkuntza berrikasi ez. Hala ere, Bardeetara edo Zaragozara zihoazen langile horiek izan ziren Zaraitzun eta Erronkarin euskara lehenbizi galdu zutenak, hain zuzen ere herri erdaldunduekin izandako harremanak direla medio.

Zaraitzutik, 40. hamarkada arte emakume asko eta asko etorri ziren Irunberrira neskame, josten ikastera edota erosketak egitera eta argi dagoenez, asko hemen ezkondu ziren. Inkestatu nuen Conchita Aoizek berak ama Zaraitzuko Espartzakoa du, Irunberrira ezkondua. Berak esan zidanez, hauetariko emakume askok Irunberrin ikasten zuen gaztelaniaz mintzatzen eta segituan uzten zuten euskara. Oso ongi adierazten du hau Conchitak berak:

Ekaitz: ¿Tú a tu madre le has oído alguna vez alguna palabra en euskera?

Cochita: En vasco, vascuence ["z" oso ongi ahoskatzen ditu!] (...) entonces no existía el euskera (...). Sí, sí, ¡bueno! todo todo. Bueno, a nosotros a nadie, claro, porque no nos enseñó nada. Yo le decía "(...) mamá, enséñeme, enséñeme" [eta amak] "a no no ¡que esto aquí no vale pa' nada!". (...) Aquí [Irunberrin] ni una palabra, pero allí [Espartzan] (...) todas hablaban.

Berehala erdalduntzen ziren kanpotik etorritako zaraitzuar hauek, gehienetan Irunberrira ezkontzen baitziren, eta ez alderantziz. Ferietara ere etortzen ziren orain gutxi arte. Honen ondorioz, herriak bailara honekin (Erronkarirekin ez hainbeste) harreman handia izan du eta badauka oraindik. Irunberriko zahar etxean bada oraino Eaurtako euskaldun bat. Inguruko herriekin eta Aragoarekin baziren harremanak, Sos del Rey Católicotik esate baterako, jende asko etortzen zen medikuarenera, eta noski, erdara zen nagusi. Baina Irunberritik saltzera mendialdera ere igotzen ziren eta harremanak gaztelaniaz egiten ziren, beraz irunberriarrek badute eragina mendialdeko erdalduntzean nolabait.

XIX bukaeran eta XX. mendean herri karlista izan da gurea, erabateko nagusitasuna zuen talde horrek eta oraindik Zirkulo Karlistak leku pribilegiatua du herriko plazan. Pentsa liteke, tradizioaren defendatzaile sutsuak izanik, Irunberrin euskara ere defendatuko zutela, aitzinatasunaren erakusgarri. Ba ez. Karlismoa Francoren alde lerratu zen diktaduran, eta

euskara deuseztatu beharreko kanpotik ekarritako etsaitzat zegoen herrian. Ideologia arrotzek ekarritako hizkuntza zen hura, Irunberrirekin zerikusirik ez zuena inondik ere. Egia esan, diktaduran zehar herrian hizkuntzarekin lotutako arazorik edo debekurik ez zen egon, besterik gabe, hizkuntza bera existitzen ez zelako. Herriko hainbat adinduk esan didatenez, bazekiten euskara mendialdean hitz egiten zela (Zaraitzun, Erronkarin, Aezkoan) eta Irunberrin hitz egina izan zela noizbait, baina pentsagaitza zitzaien inolako berreskuratze prozesurik, aski baitzuten eguneroko ogia lortu eta elizara joatearekin. Apaizak, mediku, botikario, alkate eta idazkariarekin batera, botere eta eragin handia zuen herrian, hala ere, nabarmentzekoa da, kargu hauetako batzuk betetzen zituztenak ez zirela herrikoak bertakoak izaten, kanpokoak baizik; eta erdaldunak, noski, jende ikasiari zegokion bezala. Apaizaren aferak sortu izan ditu arazoak, XVIIIko prozesuetan ikusi dugun bezala; gaur egun ere gai horrek zer esan ematen du, gerora kontatuko dudan moduan. Testuinguru soziokultural tradizional honen barnean aldaketak suertatzea zaila ematen badu ere, frankismoaren azken urteetan Euskal Herrian sortu zen mugimendu soziopolitiko-kulturalak eragina izanen du Nafarroan, eta Irunberrin ere bai, bistan da.

3.2.2 Haize berriak: euskararen normalkuntza prozesua

Diktadura ahultzeak oposizioen indartzea ekarri zuen eta hizkuntzaren aldeko kanpainak hasi ziren Euskal Herrian. Irunberrin ere piztu zen mugimendu hura. Orain betiko karlista kontserbadoreez gain, ideologia abertzale ezkertiarak herritarren sektore batean errotu ziren. Aldarrikapen ugari ziren, orain deskribatzea luze joko luke, beraz interesatzen zaiguna aipatuko dut. Irunberrin euskara hizkuntza propioa zen eta berreskuratu beharra zegoen. Urte askotan gatazka politiko sendoa egon da herrian, bi alderdi hauen artean eta urte luzez, hain herri txikiarentzako oso kaltegarriak sozialki, dudarik gabe. Zergatia, argia da: herritarren zati batek hizkuntzaren politizazioa salatzen zuen eta euskarari separatismo, nazionalismo eta gisa horretako izenak erantsi zitzaizkion. AEKK ere bere gau eskola ezarri zuen Irunberrin eta hainbat heldu euskara ikasten hasi ziren. Hurrengo pausoa bada, haien seme-alabek euskara ikastea zen. Testuinguru nahasi horretan sortu zen, 1980an, “Arangoiti” ikastola. Helduen alfabetatzeak gorabeherak izan ditu eta duela urte batzuk bertan behera geratu zen; euskararen zabalkuntza ikastolari lotua agertu da geroztik.

Ikastola urratsez urrats

Irunberrin euskara sustatzeko asmoz ikastola sortu zuten. Lehen urte horretan bederatzik ikasle bildu zituzten eta etsai handiak topatu zituzten herrian, ordura arte monjen ardurara baitzen Haur Hezkuntza. Hasierako urteetan Haur Hezkuntza baino ez zegoen euskaraz eta Lehen Hezkuntzara pasatzean haurrak Zangozara jo behar zuten, euren ikasketak gaztelaniaz jarraitzera. Urte pare bat pasatu ziren Zangozan Irunberrikoekin batera Lehen Hezkuntza klasea (orduan EGB) osatzea lortu zutenean. Baina horrek Irunberrin oraindik ez zegoen euskararen aldeko kontzientzia handia eskatzen zuen, haurrak hain gazte Zangozara bidali beharrean baitzeuden. Ondorioz, Haur Hezkuntza bukatu, asko ziren gaztelaniara pasatzen zirenak, beste herri batetara joan behar ez izateko. Hurrengo pausoa, beraz, Irunberrin Lehen Hezkuntza sortzea zen. Garai horretan Irunberri eremu ez-euskaldunean sartua zegoen jadanik, baina Parlamentutik pasaz gero hau aldatzeko aukera zegoela ematen zuen, hortaz, Lehen Hezkuntzarekin hastea erabaki zuten modu alegalean, legea noiz aldatuko zain. Aldaketa, ez zen iritsi.

Ikastolaren filosofia, euskal hezkuntza publikoko lerroa sortzea zen, hain herri txikian bi eskola egoteak zentzurik ez zuelako horretarako behar zuten legalizazioa. José Andrés

Burguete alkate zela (egun Ingurugiro eta Etxebizitza kontseilaria da), 90. hamarkadan, saiatu ziren Parlamentuan bigarren aldiz eztabaida zedin, jakinik publiko bihurtzea lotzen baldin bazuten, ikastolako irakasleek lanpostua utzi beharko zutelako edo oposaketak egin, baina emaitzak antzuak izan ziren berriz ere. Erabakia hartu beharra zegoen, gero eta jende gehiago baitzegoen: bide publikoa uztea deliberatu zuten, eta eskola kontzertatu izateko borrokatzen hasi ziren, hau dena erortzekotan zegoen eraikin zahar batean. Ildo publikoa uztea (bortxaz) erabaki zenean, orduan eskatu zuten Nafarroa Oineza ospatzea, gehien bat eraikin berri baten behar handia baitzegoen. Eredu pribatua hautatzea baino ez zaio geratu kooperatiba modura antolatuta dagoen ikastola honi, hala ere, arima publikoa mantentzen jarraitu nahi dute. Bestalde, era alegalean zeuden ikastolei Nafarroako Gobernuak ematen zien subentzioa murriztear daude, eta legalizazioa behar zen edonola. Dena den, kontzertazioa lortzeko eraikin berria legez beharrezkoa zen, beraz, Nafarroa Oinez prestatzea hil ala bizikoa zen. Eredu publikoan euskara irakasgai gisa hartzeko aukera dagoenez, pribatua zen ikastolaren kontra lerratu ziren zenbait, dena dela, ikastolak uste zuen D eredua behar zela Irunberrin, haien iritziz urtez urte hain erdaldun zen giroa euskalduntzeko modu bakarra zelako, beraz ikastolak bere bidea segitu zuen.

Nafarroa Oinez 2003

Ba bai, publikotasuna lortzerik ez zegoela ikusirik, eta Gobernuak diru-laguntzak murriztu behar zituela ikusirik, legalizazioa behar zen, eta legal izateko eraikin berri bat, beraz, Nafarroa Oineza beharrezkoa zen guztiz. Ikastola zenbateraino dagoen herrian onartua, festa hau prestatzeko unean ikusi zen. Ikastolako langileek beraiek esaten zuten ez zutelako horrelako harrera onik espero, herriko biztanleen gehiengo zabalak, adin eta izaera orotarikoak, bere aportazioa egin baitzuen ahal zuen neurrian. Hau dudarik gabe, aurreko zatian azaldu dudan egindako lan eskerga horri zor zaio. Biztanleak konsziente ziren zer nolakoak pasa zituen ikastolaren kooperatibak ahal bezala aurrera ateratzeko. Nafarroa Oinez lan izugarria izan zen 1500 biztanleko herri batentzat, baina batasuna ekarri zion herriari. Nolabait, aurreko urteetan egondako tirabira politikoak alde batera utzi eta euskararen alde batu ziren kolore eta izaera guztietako bizilagunak. Esan daiteke, Nafarroa Oinezak etapa bat itxi eta beste bat ireki zuela, ez bakarrik zentru berria lortu zutelako, baizik eta sozialki euskararen normalizazioan pauso handia ekarri zuelako, oraindik balorazio estatistikoak egiteko goizegi bada ere.

Gauza jakina denez, Irunberriko Nafarroa Oineza, 2003an, urak zapuztu zuen. Momentu haietan ez zen kezka nagusia festa suspendituko zen edo ez, baizik eta festa suspenditzeak eta dirurik ez lortzeak ikastola berria eraiki gabe geratzea esan nahi zuela, beraz, ezin legalizatu eta ezin ikastolak aurrera egin. Zorionez, Euskal Herri osoko jendeak (eta Euskal Herriko kanpokoak ere bai) bere laguntza eman zuen, aurrekaririk gabeko mobilizazio baten ondorioz. EITBk aldeko kanpaina indartsua egin zuen eta bere fruituak eman zituen. Herri baten urteetako lana egun bakar batean desegin zen, baina horrelako laguntza ikusteak Irunberriko jende askori begiak ireki zizkion eta momentu horretan ohartu zen euskarak bazituela jarraitzaileak. Gainera laguntza eman zuen jende hura gero Irunberrira hurbildu da ikastola ezagutzera.

Ikastolak urtez urte arrakasta handiagoa du, nahiz eta arrakasta hori progresiboa eta gorabeheratsua izan den, talak agertzen duen bezala.

Ikasturtea	Eskola Publikoa	Ikastola	Haurrak osotara	% ikastolan
80/81	28	9	37	24
81/82	21	5	26	19

82/83	49	2	51	4
83/84	28	4	32	12.5
84/85	24	4	28	14.3
85/86	25	1	26	3.8
86/87	25	5	30	16.6
87/88	29	5	34	14.7
88/89	23	4	27	14.8
89/90	17	7	24	29.6
90/91	19	3	22	13.6
91/92	24	7	31	22.5
92/93	28	3	31	9.6
93/94	7	4	11	36.6
94/95	12	10	22	45.4
95/96	6	8	14	57'4
96/97	8	7	15	46'6

Ikastolaren benetako gorakada 93/94 ikasturtean du hasiera, eta daturik lortzea izan ez badut ere, geroztik handituz doa ikastolan daudenen portzentaia. Arrakasta hori gatazka linguistikoa gainditzearekin batera dator, hau da, euskara normalizatzearekin batera, eta politikatik bereiztearekin batera. Gauzak horrela, 2004/2005 ikasturtean 85 ikasle zituen ikastolak eta 40 erdarazko eskolak, kontuan hizanik berrogei horietarik soilik bik hautatu zutela erdara hutsezko eredia, beste guztiak A eredian baitaude.¹¹ Beraz, euskarak aurrera egin ahala, ikasle gehiago ditu ikastolak. Arangoitikoek ez dute espero emaitza hoberik ikasle kopuruaren aldetik momentuz, XXI. Mendea bikain hasi baita euskararen normalkuntzaren bidean eta ikasle kopuruaren aldetik (datu ofizialak ez ditudan arren). Gainera, gaztelaniako eskolako irakasleek ez dute inolaz ere euskararen kontrako jarrerarik, haietarik batzuk ere euskaldunak direlako eta ikastolarekin batera ekintzak antolatzen dituztelako. Oso berri ona da hain herri txikian horrelako banaketarik ez egotea, normalkuntzaren seinale garbia baita.

Udalaren jarrera

Ikastolaren giroan mugitzen direnek udalaren jarrera bortitz salatu dute, ez baitu inolako laguntzarik ematen eta Nafarroa Oinez antolatzeko edo ikastola berria eraikitzeko trabak paratu zituelako. Jende askok esan dit udalaren jarrera ez datorrela bat alor honetan herritarren ikusmoldearekin, hau da, herriak udalak baino askoz gehiago laguntzen eta babesten duela euskara eta ikastola. Pasibismo hau kritikatzeko da, lan handia egin baitu ikastolak eta udalak lan hura aprobeztatu duelako, berari legezkiokkeenak ez egiteko. Ez daude ados udalak jarritako aurtzaindegiarekin, uste baitute horrek haurrak gaztelaniara bideratzen dituela, gero ikastolan ez sartzeko.

Udalak aitzitik, laguntza ekonomikorik ematen ez duela aitortzen du, haien ustetan eskola publikoa defendatu behar delako. Posible ikusten du udalak euskal lerroa eskola publikoan sartzeko etorkizunean, baldin eta zonifikazio linguistikoa aldatzen bada, eta herriak horren beharra ikusten badu. Gaur egun hizkuntza ez dagoela politizatua esan zidan alkateak, eta normalizazio bidean dagoela. Udala, normalizazio horrek aurrera egin ahala neurriak hartzen ari dela esan zidan (festa programa elebiduna, karriken izenak elebidun...). Garde

¹¹ Iturria: *Ekialde* aldizkaria, 1 zkia., 2005

Alkatearen aldetik, oraindik hasten ari den gauza bat da euskararena eta zer emaitzak emanen dituen ikusi behar da, erabakiak hartu aurretik.

Elizaren eragina

Dagoeneko ikusi ditugu apaiz euskalduna dela eta ez dela egondakoak. Irunberriko jende adinduarengan herriko apaizak eragina badu eta bere esku dago herrian errotuta dauden hainbat ekitaldi erlijiosoren antolakuntza. Duela zenbait mende egondako gatazka hura, orain hilabete batzuk errepikatu zen. Apaiz euskalduna zeukan Irunberrik duela gutxi arte eta bai euskalduna zelako, bai pertsona irekia zelako, erabat sartuta zegoen herriko bizimoduan. Bere apaiz lana euskaraz egiteko gai zen hala behar izanez gero, eta herrian euskararen presentzia normalizatua dagoenez, apaizarekin oso pozik zegoen jendea. Orduan, Iruñeko Artzapezpikutzak apaiz euskaldun hau Leitzara bidali zuen eta gure herrira erlijioso erdaldun poloniarra eraman. Herria honen kontra mobilizatu zen sinadurak bilduz, eta Artzapezpikuari protestak eginez, baina alferrik. Irunberrik orain apaiz erdalduna du eta elizkizunetan euskarazko hitzak sartzen dituenen, alde aurretik prestatuak eta oso ongi prestatuak behar dute, beraz elizan euskarak latinak duen leku bera du, ez da hizkuntza bizia, herriko fededun euskaldunen gaitzerako.

Gizartea: eboluzioa

Izaskun Aldaz ikastolaren sortzaileak berak esan zidanez eta hemen aipatu dugunez, lehendabiziko urteetan gaizki begiratzen zuten ikastolako jendea, arrotz, kanpotik etorritakoak bailiran. Lehen azaldu dudana bezala, gatazka politikoa piztua zegoen herrian eta euskara politikarekin uztartzen zen. Hala ere, ikastolak bestelako bidea hartu zuen, ez zuen nahi gero eta jendetsuago zen eskola hau euskaldunen kaiola bilaka zedin, herrian integratu nahi zuten, horretarako herriko talde guztiekin harremanetan sartuz, ideologia politikoak alde batera utziz. Horri esker, gaur egun oso pentsaera anitzetako gurasoak batzen ditu ikastolaren kooperatibak eta ia ikastola da Irunberrin hezkuntza bide bakarra.

Esatekoa da, Irunberrik ez duela tradizioz ez turismo ez mugimendu kultural adierazkorrik izan eta ikastolak, euskara irakasteaz gain, dantza taldea sortu, tailerrak antolatu, txistua irakatsi eta lehendik zeuden beste kultur ekintzak (txaranga, gaiteroak) batu ditu, kultura kalera ateraz. Hau herritarrek baloratzen jakin dute, hasiera batean ikastola begi txarrez ikusten zutenek herriari bizitasuna ematen diola ikusi dute: ikastola zaharra zegoen tokian bizi direnek faltan botatzen dituztela haurren oihu eta jokoak entzuna dut behin baino gehiagotan. Bestalde, ikastolak topatu dituen traba guztiek badute bere alde ona: jendea batzearena. Ikastolako ikasle eta guraso ohiek harremana mantentzen dute, ikastolak jendea behar izaten jarraitzen duelako; beti bada zer egin. Azken urteetan, gainera, Irunberriko Gazte Asanbladak eta bestelako erakundeek Euskal Herriko Gazte Olinpiaden jardunaldiak egin dituzte Irunberrin, Joaldunen kontzentrazioak egon dira... euskal giroak herriari bizia ematen diola erakutsiz.

Lehen ikusi dugun matrikulazioen arrakastak, badakar beste fenomeno bat. Hasieran euskararen kontra egon ziren horien bilobak egun ikastolako ikasle dira, euskaraz mintzo dira, eta aitona-amona horiek ikusi dute euskara jakiteak ez diela inolako kalterik egin, are gehiago, onura soziokulturalak ekarri dizkiela bai bere familiakideei, bai herriari berari. Garai batean gehiengo zabala ziren euskararen kontrakoak orain gutxiengoa dira, hizkuntzak bederen normalizatze bidea daramala adieraziz. Ezezagunarekiko beldurra zuen jendeak eta poliki galduz doa.

Inkestatu guztiak bat datoz herriko jende gazteak normaltasun osoz ikusten duela euskara, baita gaztelaniazko eskolara doan jendeak ere, bistan denez, herri txiki batean denak elkarrekin egoteko eta gauzetan elkarrekin parte hartzeko premia dutelako. Lehen aldiz, bazeuden eskola eta ikastolakoen arteko tirabirak, baina gaindituak dira egun. Hala eta guztiz ere, euskara oraindik ez da jende askorentzat Irunberriko berezko hizkuntza, XVII. mendeko eskuizkribuetan esaten zen bezala. Biztanleek onartzen dute, laguntzen ere zenbaitetan, baina kanpotik ekarritako zerbait da.

Erabileraz

Hau da euskararen normalizazioan aritzen direnen erronka nagusia: euskara karrikan ibiltzea. Irunberrin oraindik lortu ez den helburua dugu hau. Giroa erdalduna da oso, bai guraso eta bai aitona-amonen aldetik, nola inguruko herrietan. Gainera komunikabideek izugarritzko eragina dute gazteengan eta horiek nagusiki gaztelaniazkoak dira.

Irunberriko haur eta gazteengan hiru etapa bereiz daitezke. Lehenengoan sortzetik zazpi edo zortzi urte bitartekoak sartuko lirarteke. Euskara erabiltzen dute, txikitatik ikasi duten hizkuntza delako, tarteka lagunekin ere euskaraz mintzo dira, eta gurasoekin, hauek hizkuntza baldin badakite. Zortzi urteetarik nerabezaroaren bukaera arte hartuko luke bigarren taldeak. Garai honetan haurrek independentzia handiagoa lortzen dute, harrokeria puntu bat ere bai eta gaztelaniara jotzen dute askotan, ideiak adieraztea zinez errazagoa suertatzen baitzaie. Nerabzarotik aurrera, gazte zenbaitek kontzientzia hartu eta euskara erabiltzen dute, beren jarduna biziki hobetuz, eta behar komunikatiboak asetzeraz ailegatuz; hau da hirugarren taldea. Baina honek kontzientzia irmo bat eskatzen du, ez da naturalki gertatzen, erabat normalizatuak dagoen hizkuntza batekin bezala; jada ez da, txikitik bezala, euskara naturalki erabiltzen, baizik eta hizkuntzaren aldeko kontzientzia piztu delako. Hau dudarik gabe ez da txarra, baina normalizazio ezaren sintoma da.

Bigarren fase horretan dagoen hutsunea ikusirik, arrunta da alde batetik, hirugarren fasean sartu den jendeak jada euskara ez berpiztea, akademikoki ez bada, eta berpizten dutenek gabezia linguistiko sakonak izatea, gazte hizkera eza esate baterako, gazte hizkera hori bigarren fasean zehar garatzekoa baita.

DBH osoa Zangozan euskaraz egiten dute irunberriarrek, baina Batxilergoa egitera Iruñera jo behar dute. Honek badu bere eragin positiboa, gazteak herritik kanpo zer dagoen ikusteko parada dutelako. Hala ere, Iruñera joateak ez du euskararen erabilera handitzen, han aurkitzen duten panorama antzekoa delako. Gainera, Batxilergoa bukaturik unibertsitatera doazenek karrerak gaztelaniaz egin behar dituzte, haustura handia suposatuz eta ordura arte herri mailan baino ezagutu ez duten euskara mundu mailan hedatzeko aukera galduz.

Hala izanik ere, Irunberriko haurren hizkuntz jarrerak oso baikorrak dira, herrian euskarak oso harrera ona duelako. Haur gehienek euskara nahi dute bere hizkuntza bezala, eta herrian eta herritik kanpo heda dadila nahi dute, ez da hizkuntzaren kontrako jarrerarik edo jarrera neutralik somatzen: haurrek euskararekin eta euskarak berarekin dakarrenarekin gozatzen dute eta gazteek euskararen berreskuratzearen parte direla ikusten dute.

Gaurko denboran ezin zaio tolerantzia ezari egotzi euskara ez erabiltzea. Gazte taldeetan asko euskaldunak izaten dira, baina bat bakarria erdaldun izatea aski da gaztelania

baliatzeko. Baina talde horretan bik euskaraz egiten baldin badute, ez dago elkarrizketa ulertzen ez duten erdaldunen aldetik inolako meziprezurik, gazteen artean bederen.

Nire ustea da, euskara herriaren eta norberaren ondasuntzat oraindik onartua ez dagoenez, hizkuntzaren erabilera oker edo traketsak ez diola euskara benetan bere sentitzen duen norbaiti bezain beste min egiten, ez baitago euskara zuzen, egoki eta modu guztiz naturalean erabiltzen duenik herrian. Ezta irakasleen artean ere, horiek aitortu baitute errejistro guztiak ez dituztela menperatzen gaztelaniaz bezain ongi. Haur batzuek, gainera, ez denek, elebitasuna defendatzen dute herrian, bai euskara bai gaztelania mantendu behar direla. Jarrera normala da, kontuan hartzen badugu gehiengoak guraso erdaldunak dituztela, nahiz eta egia den berandu alfabetatutako jende nagusia badela, eta zenbait esparrutan eta hainbat pertsonarekin euskaraz mintzatzen diren. Jatorriz eta txiki txikitatik euskaldunak direnen trasmisio naturala ez da oraindik errealitate bat, laster hasiko bada ere.

4. ONDORIOAK

Ikusi dugu euskarak Irunberrin izan duen jarraipena eta gaur egungo egoera zein den; tenorea dugu ba, ondorio batzuk ateratzeko.

1.-Euskararen galera, aberatsen eta letratuen desprestigio kanpaina bati zor zaio, inguruko herri erdaldunekin harremanetan sartzeak areagotu zuena. Hizkuntza gutxitua zen euskarak, inguruko bailaretan egiten zenak, ez zuen eragin garrantzitsurik izan herrian. Historian zehar izandako eraso konstante honek euskara ahaztarazteaz gain, kontrako jarrera sendoak sortu zituen, karlisten artean adibidez.

2.-Politika eta hizkuntza lotu behar ez dela pentsatzen bada ere, ideologia politiko baten eskutik hasi zen euskara berreskuratzen herrian. Gerora politika eta hizkuntza bereizten jakin izanak normalizazioa ahalbidetu du, gaur egun konfrontazioa gaindituta dagoela esan daitekeelarik.

3.-Arazo hauek gaindituta egon arren, ez du ematen instituzioen jarrera eta herriak hartzen duena berbera direnik, autoritateekin gatazkak egoten direlako, eta herriarekin ez. Bai udalarekin, bai Elizarekin azken garaian.

4.-Ikastolak berebiziko lana egin du normalizazioaren alde eta bide egokia daramala ematen du, emaitzak ikusita. Dena dela, erabateko normalizazioa ez da oraindik lortu, gizabanako elebidunak ditugulako, baina gizarte elebakarra.

5.-Irunberriko herriak euskara apreziatzen du eta sortzen duen mugimendu kulturala onartzen du, baina kanpotik ekarritako hizkuntza da oraindik euskara. Hala ere, ikastola herrian bertan izateak eta beste herri batetara joan behar ez izateak hori bermatzen du.

5. ETA HEMENDIK AURRERA ZER?

Izan den bide ona ikusita, ematen du bidea egina dagoela, baina lan handia egin beharra dago normalizaziorantz, beraz, hurrengo urteetarako egitasmo zenbait izan beharko genituzke gogoan. Niri batzuk bururatu zaizkit orain artekoa behatuz.

Arazorik larriena euskara kalean ez entzutea bada, nire ustetan helduen alfabetatzeari berriz ere garrantzia eman beharko litzaioke, haurrek eredu euskalduna izan dezaten. Helburua gizabanako eleanitzak izatea da, baina gizarte elebakarra eta euskalduna.

Hau lortzeko ikastolak ez du bakarrik alor linguistikoa landu behar, identitatea eta hizkuntz ekologia berebizikoak dira. Kontua ez da hizkuntza bat ikastea, gure hizkuntza ikastea baizik. Irunberriarrek jakin behar dute hizkuntza guztiak direla garrantzitsuak eta kultura oso baten erakusle direla, liburu irekiak direla. Horregatik Irunberri ezin du bakarrik euskara ikasi, ezinbestean euskarak dakarren kultura ezagutu behar du, eta jakin beharra du hizkuntza eta ,beraz, kultura bat desagertzea mundua pobretzea dela, animalia espezie bat galtzen denean bezala. Hau ulertzean soilik izango du Irunberri euskara hizkuntza propio gisa.

Euskara pobre eta traketsa entzuten dela esan ohi da, zenbaitetan naturaltasunetik at dagoena. Ahozotasuna landu behar dute ikastolan, hitz egitea, antzerkiak egitea, gauzak esateko baliabide linguistiko desberdinak probatzea (tonua, hiztegi desberdina, ahoskera, hitz egiteko abiadura desberdinak...), roboten modura mintza ez daitezen eta testuinguru linguistiko bakoitzaren arabera euskara dagokion bezala erabiltzen jakin dezaten.

Oraingoz ez da sobera egin, baina hemendik aitzina Irunberriko haurrei euskarak ikastolan baino leku gehiagotan komunikatzeko balio duela demostratu behar zaie. Euskal Herriko ekialdea (Irunberrietik Zuberoaraino) batzen duen egitasmoak badira, nonbait kultura komuna dutelako hainbat gauzetan, hortaz herriko gazteek zuberotarrekin elkartu behar dute ikus dezaten euskaraz baizik ezin dutela hitz egin. Gainera, kanpoko euskaldunak herrira ekartzeak Irunberriko giroa erruz euskaldunduko zuen, eta Irunberriko euskaldunberriei edo ikastolako haurrei beste euskalkiak ezagutu eta beren euskara kolokiala hobetzen lagunduko zien.

Lehenik eta behin Zangozan Batxillergoa euskaraz beharrezkoa iruditzen zait, baita ziklo formatiboak ere, hezkuntza oso bat euskaraz egon dadin, gehiegi urrundu gabe, bestela asko gaztelaniara pasatzen baitira. Hala ere, Batxillergoa euskaraz egitera Iruñera doazenek, hor amaitzen dute bere euskarazko formakuntza: oso garrantzitsua iruditzen zait euskal unibertsitate bat, honek beste euskalki eta eremuetako jende euskalduna ezagutzeko parada emanen baitzuen, euskarari goren gradua emateaz gain.

Alkateak esan zidanez, industriagune bat egin nahi dute Irunberri eta Iruñetik Jacara doan autobidea laster ailegatuko da herrira. Bi gauza hauek jende berria ekarriko du bai Iruñetik bai inguruko bailaretatik, eta populazioa zertxobait handitu daiteke gainera. Ikastolaren lana da jende berri hau guztia bereganatu eta euskaraz hezi dadin. Honetarako jadanik frogatu duen kalitatea erakustez gain, herrian kulturalki eta sozialki integratzeko euskara beharrezkoa dela erakutsi behar du. Honekin batera, inmigranteak, ijitoak eta abar euskarara hurbiltzea landu beharko litzateke, batez ere etorkinen kasuan, gero eta gehiago izanen ditugulako eta herrian indarra hartuko dutelako.

Hau guztia lortzeko ikastolak lortu beri duen legaltasuna eta kontzertazioa aprobetxatzen jakin behar du, diru laguntzak ongi erabiliz eta bere material didaktiko propioa sortuz momentuan dauden beharren arabera, legal izateak hau egiteko baimena ematen baitu.

Aurreko puntua hauek dira, nire ustez, heldu diren urte hauetan lantzekoak. Hauek aurrera ateratzea lortzen bada, denbora kontua da Irunberri euskara erabat errotzea, jadanik ikastolan ikasi zutenek seme-alabak izaten laster hasiko direlako herrian hizkuntzaren

transmisio naturala hasiz, eta euskaraz matrikulatutakoen kopurua bikaina dela ikusita, urte batzuen buruan biztanleriaren ehuneko zabal bat euskalduna izanen delako.

6. BIBLIOGRAFIA

Anonimoa, 1627. Signatura: Archivo Diocesano de Pamplona; Ollo C/689, 8. zkia.

Anonimoa, 1662. Signatura: Archivo Diocesano de Pamplona; Oteiza C/1.055, 9. zkia.

Arana, Aitor, 2003. *Nafarroako ipar-ekialdeko euskara Irunberritik Aezkoaraino*. Alaffaylla: Tafalla.

Erize, Xabier, 1997. *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa 1863-1936. Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Nafarroako Gobernua: Iruñea, apud Aitor Arana, 2003.16-17.orr.

Jimeno, José María, 1997. *Navarra. Historia del Euskera*. Txalaparta: Tafalla, apud Aitor Arana, 2003. 18.orr.

Iñigo, Andrés, 2003. “Nafarroa Oinez dela eta” *Euskera* 48: 2 (Separata). Euskaltzaindia: Bilbo.

Rebolé, Eusebio, 1988. “El vascuence en el siglo XVII” in *Historia de la villa de Lumbier-Ilumberri*. Irunberriko udala: Irunberri. 159-176. orr.

Rebolé, Eusebio, 2003. “Toponimia y léxico vascos en la villa de Lumbier/Irunberri” *Euskera* 48:2 (Separata). Euskaltzaindia: Bilbo. 794-819. orr.

Santazilia, Ekaitz, 2006. “Irunberriko toponimiaz” *Ekialde* 5.: Kebenko: Erronkari. 19. orr.